


# Nola antolatu hitz multzo bat Microsoft Excel programaren bidez

Zure liburuan, proposatu dizugu ikasten dituzun hitz berriekin ikasturtean zehar glosario bat egitea. Ordenagailua erabiliz egiten baduzu, askoz ere errazagoa izango zaizu. Izan ere, ordenagailuaren bidez hitzak alfabetoaren arabera oso azkar antola ditzakezu, bai eta egin ditzakezun akatsak erraz zuzendu ere.

Urrats hauei jarraitu behar diezu:


1. Exekutatu Microsoft Excel programa (horretarako, joan ordenagailuko **HASI** menura, hautatu **PROGRAMAK** aukera, eta ondoren, **Microsoft Excel**). Programak dokumentu berri baten pantaila erakutsiko du (hala gertatzen ez bada, sakatu **CTRL + U** teklak eta agertuko da). Honen antzeko pantaila bat agertuko da:




2. Idatzi hitzak ezkerreko lehen zutabean, eta eskuinekoan, hitz bakoitzaren definizioa. Hitzak nola antolatzen diren azaltzeko, antolaketa-proba bat egingo dugu, pantaila honetan ageri diren hitzak erabiliz.

HITZA	DEFINIZIOA
Koilara	Jateko erabiltzen den kirtendun tresna ahurra eta obala.
Planeta	Zeruko gorputz opakoa, izar baten inguruan bira egiten duena eta argirik egiten ez duena.
Botaluma	Idazteko tresna, barnuan tinta-hodi bat duena eta puntan metalezko bolatxoak.
Tiradera	Altzari baten estalki gabeko kaxa, ahokatzan den hutsunean sartu eta bertatik atera datekeena.
Ordenagailua	Informazio automatikoki tratatzeko gai den makina. Programa informatikoei kontrolatutako eta oso azkar egindako eragiketa matematikoen eta logikoen bidez egiten du lan.
Arbela	Informazioa programa batetik bestera eraman nahi denean kopiatzeko erabil daitekeen erremua.
Telefonoa	Komunikazioak distantzia handira hartu eta igortzen dituen tresna.
Diskoa	Altuerarekin alderatuz oso oinari handia duen zilindro formako gorputza.
Papera	Zuntz begetalezko erez egindako ori mehea, bertan idazteko edo marrazteko, objektuak biltzeko eta beste gauza askotarako erabiltzen dena.
Katlua	Kifena duen ontzi txikia, zabalera handiagoa duena altuera baino, eta normalean, zenbait edari hartzeko erabiltzen dena.
Ondoeza	Ongizatearen asaldaketa.
Magnitudea	Gorputz baten ezaugarri neurgarria, hala nola luzera, azalera, tenperatura eta pisua.
Hari gabekoa	Hariak edo kable eroaleak erabiltzen ez dituen komunikazio elektronikoari dagokiona.
Teklatua	Musika-tresna baten edo tresna edo makina baten tekla multzoa.
Guraizeak	Mozteko erabiltzen den tresna, aho bakarreko bi sorbatzez osatuta dagoena. Sorbatzak gurutze forman lotuta daude erdiko ardatz baten bidez, eta iieki eta itxi egiten dira.
Akaroa	Araknido mikroskopikoa, trakea- edo larrazal-arnasketa duena, eta abdomeno eta toraxa bat eginda dituena. Samitan, animalien eta landareen parasitoa da. Kindasioen flumeko itxas animalia omogabea. Aterki-formako gorputza du, eta zenbait garro edo beso ditu zintzilik. Sexu bidezko ugalketa du, eta ukitzen bada, azala narritzen du.
Marmoka	

3. Ondoren, hautatu, saguaren laguntzaz, hitz eta definizio guztiak, eta **Datuak** menuan, hautatu **Antolatu** aukera, pantailan adierazten den bezala.



4. Behekoaren antzeko elkarrizketa-koadro bat agertuko da. Koadro horretan, adierazi beharko duzu zer zutabe antolatu nahi duzun alfabetoaren arabera; oraingoan, *HITZA* izeneko zutabea izango da. Halaber, antolaketa-irizpidea ere aukeratu beharko duzu, goranzkoa, hain zuzen.



**Onartu** teklan klik egin ondoren, hitzen zerrenda antolatuta geratuko da. Ohar zaitez hitz bakoitza dagokion definizioaren ondoan ageri dela. Programa arduratu da gauza bakoitza dagokion tokian jartzeaz.

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
HITZA	DEFINIZIOA								
1 Akroa	Arakido mikroskopikoa, trakea- edo larusazal-amasketa duena, eta abdomena eta toraxa bat eginda dituen. Sarritan, animalien eta landareen parasitoa da.								
2 Arbela	Informazio programa batetik bestera eraman nahi denean kopiatzeko erabil daitekeen eremua.								
3 Bolaluma	Idazteko tresna, barmuan tinta-hodi bat duena eta puntan metalezko bolatxoa.								
4 Diskoa	Altuerekin alderatuz oso oinami handia duen zilindro formako gorputza.								
5 Guraizeak	Mozteko erabiltzen den tresna, aho bakarreko bi sorbatzez osatuta dagoena. Sorbatzak gurutzeko forman lotuta daude erdiko ardatz baten bidez, eta ireki eta itxi egiten dira.								
6 Hari gabekoa	Hirak edo kable eroaleak erabiltzen ez dituen komunikazio elektronikoen dagokiona.								
7 Katilua	Kirtena duen ontzi txikia, zabalera handiagoa duena altuera baino, eta normalean, zenbat edari hartzeko erabiltzen dena.								
8 Kailara	Jateko erabiltzen den kirtendun tresna ahurra eta obala.								
9 Magnitudea	Gorputz baten ezaugami neurgaria, hala nola luzera, azalera, temperatura eta pisua.								
10 Marmoka	Kindaroen filumeko itxaso animalia omegabea. Aterki-formako gorputza du, eta zenbait garro edo beso ditu zintzilik. Sexu bidezko ugalketa du, eta ukitzen bada, azala narritatzen du.								
11 Ondoeza	Ongizatearen asaldaketa.								
12 Ordenagailua	Informazioa automatikoki tratatzeko gai den makina. Programa informatikoen kontrolatutako eta oso azkar egindako eragiketa matematikoen eta logikoen bidez egiten du lan.								
13 Papera	Zuntz begietatik orez egindako omi mehea, bertan idazteko edo marrazteko, objektuak hiltzeko eta beste gauza askotarako erabiltzen dena.								
14 Planeta	Zeruko gorputz opakoa, izar baten inguruan bira egiten duena eta argirik egiten ez duena.								
15 Teklatua	Musika-tresna baten edo tresna edo makina baten tekla multzoa.								
16 Telefonoa	Komunikazioak distantzia handira hartu eta igortzen dituen tresna.								
17 Tiradera	Altzari baten estalki gabeko kaxa, ahokatzan den hutsunean sartu eta bertatik ateratu daitekeena.								
18									
19									
20									
21									

**Microsoft Word** programak ere hitzen zerrendak antolatzeko aukera ematen dizu. Ikertu nola egiten den eta programa horrek zer aukera eskaintzen dituen.